

UDAL APARTAMENTUETAKO PREMIAZKO OSTATU-ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

4. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Kontzeptua

2. artikulua.- Prezio publiko hauek dagokien Erregelamenduan B motako lizentziarako zehazten den zerbitzurako ezarri dira. Zerbitzuak lizentzian aipatutako apartamentuaren okupazioa eta bertako altzarien eta tresnen zein etxeko gainontzeko zerbitzu osagarrien erabilera hartzen ditu barne.

Tarifen aplikazioa

3. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

4. artikulua.- Oinarrizko modulutzat egongela, sukaldea, komuna eta logela bakarra dituen apartamentua hartuko da, 30 metro karratu ingurukoa.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

5. artikulua.- Zerbitzu hau erabiltzeko prezio publikoa hilabetez hilabete ordainduko da, betiere hilekoak osorik eta aurretiaz ordaindu behar direla.

Hasierako edota amaierako ordainketak, hilabete naturalekin bat ez badatoz, egun naturalak hainbanatuz egingen dira.

6. artikulua.- Eskabidearekin batera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako aurkezturiko aitortpenaren kopia aurkeztuko da, halakorik egoki bada, edo, bestela, urtean jasotako diru-sarrerara gordinak egiaztatzen dituzten agiriak.

7. artikulua.- Tarifak aplikatzeko oinarritzat hartu beharreko diru-sarrerara gordinak tarifa horiek noiz aplikatu behar diren eta aurreko urtean jasotakoak izanen dira. Goian aipatutako agiriak aurkezten ez dituztenei gehieneko tarifa ezarriko zaie.

8. artikulua.- Zerbitzua erabiltzeko lizentzia eskuratu eta gero hari uko egiten bazaio, hilabete bati dagokionaren % 50 ordaindu beharko da. Lizentzia epe laburrago baterako ematen bada, berriz, ezarritako prezio publikoaren % 50 ordaindu beharko da.

9. artikulua.- Eranskinean ageri den moduan, hilabeteko gutxieneko kuota bat ezarri da apartamentu bat erabiltzeko lizentzia bakoitzari aplikatzeko, kontsumitutako uraren eta argi indarraren ordainketa gisara.

TARIFA-ERANSKINA

FAMILIAREN URTEKO ERRENTA	OINARRIZKO MODULUAREN HILEKO ZENBATEKOA
- 5.787,38 eurotik behera	21,50 euro
- 5.787,39 eta 6.944,62 euro bitarte	54,30 euro
-6.944,63 eta 8.101,86 euro bitarte	81,00 euro
- 8.101,87 eta 9.259,10 euro bitarte	108,70 euro
- 9.259,11 eta 10.417,53 euro bitarte	135,30 euro
- 10.417,54 eta 11.574,76 euro bitarte	162,00 euro
- 11.574,77 eurotik gora	186,60 euro

Zenbateko horiei % 20 gehituko zaie oinarrizko moduluko ez gain erabilitako gela bakoitzeko.

Tarifak aplikatzeko, hona zer hartuko den urteko *per capita* errentatzat: familia-unitateak eskabidea noiz aurkeztu eta aurreko urtean izandako diru-sarrerara gordinen batura familia-unitate horren kideen kopuruaz zatituta ateratzen den zenbatekoa.

Gutxieneko kuota hilean, uraren eta argi indarraren gastuak ordaintzeko	97,40 euro
---	------------